Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko azaroaren 9a, asteartea — 214 — Martes, a 9 de noviembre de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## LAZKAOKO UDALA

*Iragarkia*

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko urriaren 4an egindako batzarraldian, udal honen plantillan hutsik dagoen eta 2021eko enplegu publikoko eskaintzan barneratuta dagoen Udaltzain Agente plaza betetzeko oinarriak onartu eta hautaketa prozesurako deialdia egitea erabaki du, ondorengo zehaztapenen arabera.

Bide administratiboan behin betikoak diren deialdi honen eta bere oinarrien aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, deialdi honen iragarkia argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean, edo, aukeran eta aldez aurretik, Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean berraztertze errekurtsoa aurkeztu.

Lazkao, 2021eko urriaren 19a.—Kepa Zubiarrain Erauskin, alkatea. (6975)

*Udaltzainen Agente lanpostua betetzeko lehiaketa-oposizio librerako oinarriak.*

*Lehena. Deialdiaren xedea.*

Deialdi honen xedea udal honetako funtzionario-langilearen zerrendan hutsik dagoen udaltzain agente lanpostua betetzea da.

*Bigarrena. Postuaren ezaugarriak.*

— Administrazio bereziko eskalako funtzionarioa, Zerbitzu bereziko azpieskala.

— Klasea: Udaltzaingoa, agentea.

— Sailkapen Taldea: C1.

— Postuaren maila osagarria: 18.

— Osagarri berezia: 25.152,26 €.

— Hizkuntza eskakizuna: 2.a derrigorrekoa.

— Aukera sistema: oposizio-lehiaketa.

Lanaldia urtero Udalak ezarriko du, eta, edozein kasutan, lanaldiak postuaren izaera eta premia bereziei erantzungo die.

Lanpostu 1 da bete nahi dena.

Ariketa baztertzaileak gainditzen dituzten izangaien kopuruak deitzen diren lanpostuen kopurua gainditzen badu, zerrenda hori postu berdin edo antzekoetan langile ez iraunkorren beharrak betetzeko erabili ahalko da.

*Hirugarrena. Lanpostuaren eginkizunak.*

Lanpostua Alkatetzaren mende egongo da modu hierarkiko eta funtzionalean. Lanpostuaren berezko eginkizunak hauek dira:

a) Gizabanakoen eskubideak erabili ahal izatea babestea, askatasun publikoak bermatzeko eta herritarren segurtasuna zaintzeko. Horretarako, polizia judizial gisa, Prozedura Kriminalaren Legeak ematen dizkion eskumenak erabiliko ditu.

## AYUNTAMIENTO DE LAZKAO

*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 4 de octubre de 2021, ha adoptado acuerdo por el que se aprueban las bases para la provisión de la plaza de Agente de la Policía Municipal, que se halla vacante en este Ayuntamiento y está incluida en la oferta de empleo público de 2021, y se aprueba, asimismo, realizar la convocatoria para llevar a cabo el proceso de selección, de acuerdo con los términos que se indican a continuación.

Contra la convocatoria y sus bases, que son definitivas en vía administrativa, podrá interponerse, en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente al de su publicación, recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia, o, potestativamente, y con carácter previo en el plazo de un mes, recurso de reposición ante la Junta de Gobierno Local de este Ayuntamiento.

Lazkao, a 19 de octubre de 2021.—El alcalde, Kepa Zubiarrain Erauskin. (6975)

*Bases para la provisión mediante sistema de concurso-oposición libre de una plaza de funcionario de Agente de la Policía Local.*

*Primera. Objeto de la convocatoria.*

Es objeto de la presente convocatoria la provisión de 1 plaza vacante de agente de la Policía Local.

*Segunda. Características de la plaza y puesto.*

— Escala de Administración Especial, Subescala Servicios Especiales.

— Clase: Policía Local, agente.

— Grupo de clasificación: C1.

— Nivel de complemento de destino: 18.

— Complemento específico: 25.152,26 €.

— Perfil lingüístico: PL-2 con carácter preceptivo.

— Sistema de elección: concurso-oposición.

La jornada de trabajo será la que establezca anualmente el Ayuntamiento, atendiendo, en todo caso, a la naturaleza y necesidades específicas del puesto.

El número de plazas que se convoca es de 1.

La lista de personas aspirantes que habiendo superado los ejercicios eliminatorios, excedan del número de plazas convocadas, podrá ser utilizada para cubrir necesidades de personal no permanente en puestos idénticos o similares.

*Tercera. Funciones del puesto.*

Dependiendo jerárquica y funcionalmente de Alcaldía, son funciones propias de su puesto de trabajo las siguientes:

a) Proteger el libre ejercicio de los derechos individuales, garantizando las libertades públicas, y velando por la seguridad ciudadana, ejercitando para tal fin las competencias propias que, por su carácter de Policía Judicial, le atribuye la vigente Ley de Enjuiciamiento Criminal.

EK\CV GAO-I-2021-06975

b) Udaleko ordenantza eta erregelamenduak, Alkatetzaren bandoak, Udalaren erabakiak zein Udalak gauzatu behar dituen poliziari eta gobernu egokiari buruzko gainerako xedapen orokorrak zehatz-mehatz betetzen direla zaintzea, bai eta gertatzen diren arau-hausteak Alkatetzari jakinaraztea ere.

c) Eraikinak, parkeak, lorategiak eta, orokorrean, udal-titulartasuneko instalazio edo ondasun guztiak –ondasun horien zaintzari atxikita beste funtzionario batzuk egon arren– zaintzea.

d) Trafikoaren eta garraioen zaintza eta antolamendua egitea, eta, zehazki:

— Udal-mugartean ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa bideratzea, bide-hezkuntzan parte hartzea –laguntza eskatzen duten organo eta zentroekin kolaboratuz–, aparkaleku publikoak eta bidegurutzeak zaintzea eta hiri-bideetan barrena trafikoari segurtasuna eta arintasuna emateko gainerako eginkizunak burutzea, hori guztia Udalak emandako zein egoki diren maila handiagoko xedapenak aplikatuta.

— Hiriguneko nahiz udal-bideetako esparruko garraiobideen eta zerbitzu publikoko ibilgailuen inguruan indarrean dauden xedapenak betetzen direla zaintzen laguntzea, bidaiariei zein salgaiei dagokienez, eta, bereziki, arriskutsutzat jotakoei dagokienez. Horrez gain, haien segurtasunari eta higieneari dagokienez, araudia gorde behar dute.

— Trafikoaren plangintza, seinaleztapena eta antolamendua ulertzen duten udal organismoekin kolaboratu eta parte hartzea.

e) Laguntza ematea hondamen publikoko kasuetan eta gizarte-laguntza eta babes zibilaren ardura duten erakunde eta organismoekin kolaboratzea.

f) Bizilagunen segurtasunari arreta ematea, pertsonak eta beren ondasunak zainduz, eta arreta berezia ematea Udalbatzako kideen babesari.

g) Beren jarduketatik eratorritako eginbideak polizia judizial gisa egitea, agintaritza judizialak eskatzen duen informazioa, pertsonei edo ondasunei buruzkoa, biltzea eta atestatu egokiak egitea. Zeregin horiek bulego propioetan egingo dira eta agintaritza judizial eskudunak izapidetuko ditu zuzenean. Egindakoa agintaritzen eskura jarri arte beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira.

h) Herritarrei ematea eskatzen duten interes orokorreko informazioa, hala nola zerbitzu publikoen helbide eta telefonoak, informazio-batzordeen eta Alkatetzari bisita egiteko ordutegiak eta antzeko beste informazio batzuk; baita arreta eta laguntza berezia ematea urritasun fisiko edo mental bat izateagatik behar duten pertsonei.

i) Udaleko administrazio-arloko funtzionamendua egokia izan dadin laguntzea, agintzen zaizkien jakinarazpenak eta ikuskatzeak eginez eta toki-zergen ordainarazpenerako agintzen zaizkien udal-erroldak prestatzen kolaboratuz. Gainera, udaleko gainerako langileen lanalditik kanpo izateagatik sortzen zaizkien gaiei arreta eman behar dizkiete, betiere haiek ebazteko ezagutza berezirik behar ez bada eta zerbitzuari berari kalterik eragiten ez badiote.

j) Patruilatzea bai oinez, bai kotxez.

k) Udaltzaingoa biolentzia matxistaren aurkako agente aktiboa da.

l) Segurtasun Batzordearekin kolaboratzea Autonomia Estatutuko 17.4. artikuluan aurreikusitako ondoreetarako, kolaborazio horretarako lege-estaldurarik badago.

m) Antolamendu juridikoak aitortzen dion beste edozein eginkizun burutzea.

b) Vigilar el exacto cumplimiento de las ordenanzas y reglamentos municipales, bandos de la Alcaldía, y acuerdos del Ayuntamiento, así como de las demás disposiciones generales relativas a policía y buen gobierno cuya ejecución sea competencia del Ayuntamiento, dando cuenta a la Alcaldía de las infracciones que se produzcan.

c) La vigilancia de los edificios, parques, jardines, y, en general, de todas las instalaciones o bienes de titularidad municipal, aunque otros funcionarios y funcionarias se hallen adscritos a la custodia de dichos bienes.

d) La vigilancia y ordenación del tráfico y transportes, y en concreto:

— El encauzamiento de la circulación rodada y peatonal en el término municipal, la participación en la educación vial, prestando la colaboración precisa a los órganos y centros que la soliciten; la vigilancia de los estacionamientos públicos e intersecciones viales, y los demás cometidos que tiendan a dar seguridad y fluidez al tráfico dentro de las vías urbanas, aplicando tanto las disposiciones dictadas por el Ayuntamiento como las de rango superior que sean pertinentes.

— Colaborar en la vigilancia del cumplimiento de las disposiciones vigentes sobre los medios de transporte y vehículos de servicio público en el ámbito del casco urbano y de las vías municipales, tanto de viajeros como de mercancías, en especial de las calificadas como peligrosas, cuidando de la observancia de la normativa relativa a la seguridad e higiene de los mismos.

— Colaborar y participar en los Organismos Municipales que entiendan de la planificación, señalización y ordenación del tráfico.

e) Prestar auxilio en los casos de calamidades públicas, y colaborar con las Instituciones y Organismos encargados de la asistencia social y protección civil.

f) Prestar atención a la seguridad de los vecinos, velando por sus personas y bienes, con especial atención a la protección personal de las que integran la Corporación Municipal.

g) Practicar las diligencias derivadas de sus actuaciones en calidad de Policía Judicial, realizando las informaciones sobre personas y bienes que sean requeridas por la Autoridad judicial, y levantando lo atestados oportunos. Estas tareas se harán en dependencias propias, tramitándose directamente a la Autoridad Judicial competente, debiéndose adoptar las medidas necesarias hasta la puesta de lo actuado a disposición de dichas Autoridades.

h) Facilitar a la ciudadanía la información de interés general que se les requiera, tales como direcciones y teléfonos de los servicios públicos, horarios de las Comisiones Informativas y de visitas a la Alcaldía, y otros de similar índole, así como prestar especial atención y ayuda a aquellas personas que, por padecer alguna deficiencia física o mental, la requiera.

i) Coadyuvar al buen funcionamiento del Área Administrativa del Ayuntamiento, realizando las notificaciones e inspecciones que se les ordenen, y prestando su colaboración en la elaboración de los padrones municipales que, para la exacción de los tributos locales, les sea encomendada atendiendo los asuntos que, por plantearse fuera de la jornada de trabajo del resto de empleados municipales, se les planteen, siempre y cuando no se requieran especiales conocimientos técnicos para su resolución y que no causen deterioro al servicio propio.

j) Se patrullará tanto a pie como en coche.

k) La policía municipal es un agente activo contra la violencia machista.

l) Colaborar, a los efectos previstos en el art. 17.4 del Estatuto de Autonomía, con la Junta de Seguridad, en el supuesto de que exista cobertura legal para dicha colaboración.

m) Cumplir cualquier otra función que le sea atribuida por el ordenamiento jurídico.

EK\CV GAO-I-2021-06975

*Laugarrena. Hautagaien baldintzak.*

Oinarri hauek arautzen duten hautaketa prozesuan onartua izateko baldintzak hurrengoak dira:

a) Espainiako nazionalitatea izatea.

b) 18 urte beteta eta 38 urte bete ez izana eskaerak aurkezteko azken egunean. Hala ere, adin-muga gaindituri ere, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetan emandako zerbitzuekin konpentsatuko da.

c) Batxilergo titulua edo baliokidea izatea edo goragoko beste edozein edukitzea. Atzerriko tituluen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen kredentziala izan behar da.

d) Gutxieneko 1,65 metroko altuera eduki behar dute gizonek eta 1,60 metrokoa emakumeek. Frogen hasiera baino lehen egiaztatuko da hau.

e) Baldintza zehatzak: A2 eta B gida baimenak.

f) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 maila edo baliokidea (2. hizkuntz-eskakizuna).

g) 315/1994 Dekretuaren eranskinari jarraikiz, bateraezina den osasun-arazorik ez izatea, ezta Euskal Herriko Poliziaren hautespen- eta prestakuntza- araudia bigarren aldiz aldatu zuen otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuari erantsita doan «medikuntzako bazterketen taulan» aipatzen diren arazoetako bat bera ere. Gaitasuna hautaketa prozesua gainditu ondoren, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera medikuaren egiaztagiri edo azterketarekin egiaztatuko da. Kargu hartzea baldintza honen betetzearen menpe egongo da.

h) Jakinaren gainean egindako maltzurkeriazko delituagatik kondenatua ez izana edo Administrazio Publikotik zigor-espedienteaz baztertua ez izana, eta zeregin publikoak betetzeko gaitasuna galduta ez izatea. Dena dela, birgaitzeko onura aplikagarria izango da, administrazio eta zigorren alorreko arauekin bat etorriz, hautagaiak onura hori agiri ofizial bidez egiaztatuz gero.

i) 53/1984 Legean (abenduaren 26koa, Herri-administrazioen zerbitzuko langileen bateraezintasunen araubidean buruzkoa) aurreikusitakoaren arabera, desgaitasun edo legezko bateraezintasunik ez edukitzea, jada kargu publiko bat dutenei edo aipatutako legezko arauak erreferentzia egiten dion aukera eskubidea jarduteko bateraezina ez den jarduera pribatua eragotzi gabe.

j) Arau-hauste larri edo oso larri batengatik Euskadiko Polizia erakunde batean sartzeko hautaketa prozesu batean baztertua ez izana, baztertze adierazpenaren datatik aurretiko izenemate epearen baliokidea den denbora pasa bada salbu.

k) Izangaiek adierazpen bat aurkeztu beharko dute armak eramateko eta, hala badagokio, erabiltzeko konpromisoarekin.

Baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epemugaren egunean eduki behar dira beteta eta lanpostua hartu arte mantendu.

*Bosgarrena. Eskaerak.*

5.1. Hautaketa prozesuan parte hartu nahi dutenek eskabidea aurkeztu behar dute udalaren web orrian (www.lazkao.eus) eskura dagoen eredu normalizatuaren arabera.

5.2. Eskabideak, deialdiaren iragarkia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunetik kontatutako 20 egun balioduneko epearen barruan aurkeztu behar dira.

5.3. Eskabideak Lazkaoko Udaletxean aurkeztu behar dira edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako eran.

*Cuarta. Requisitos de las personas aspirantes.*

Son requisitos para ser admitida en los procesos selectivos regulados por estas Bases:

a) Tener la nacionalidad Española.

b) Tener cumplidos 18 años de edad y no haber cumplido los 38 años de edad a la fecha de finalización del plazo de presentación de instancias. No obstante, este límite máximo será compensado con servicios prestados en cuerpos de policía del País Vasco.

c) Estar en posesión del título de bachiller o equivalente, o cualquier otro de nivel superior. En el caso de las titulaciones extranjeras deberá estarse en posesión de la credencial que acredite su homologación.

d) Tener una estatura mínima de 1,65 m. para los varones y 1,60 m para las mujeres. Este extremo será comprobado antes del inicio de las pruebas.

e) Requisitos específicos: Carnet de conducir A2 y B.

f) Poseer el nivel B2 de euskara del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas o equivalente (perfil lingüístico 2).

g) No padecer ningún problema de salud incompatible según el anexo del Decreto 315/1994, ni ningún otro problema de los mencionados en el «cuadro de exclusiones médicas» adjunto al Decreto 36/2004 de 17 de febrero de segunda modificación del reglamento de selección y formación del País Vasco. Una vez superado el proceso de selección, se acreditará con el reconocimiento o certificado médico correspondiente, según lo establecido por la normativa en vigor. Dicho requisito será de obligado cumplimiento para la toma de posesión del cargo.

h) No encontrarse inhabilitada para el ejercicio de funciones públicas, ni haber sido separada mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas, ni haber sido condenada por delito doloso. Será aplicable, no obstante, el beneficio de la rehabilitación, de acuerdo con las normas penales y administrativas, siempre que aquélla se acredite mediante el correspondiente documento oficial por parte de la aspirante.

i) No estar incursa en ninguna causa legal de incapacidad e incompatibilidad, de acuerdo con lo previsto en la Ley 53/1984, de 26 de diciembre de Incompatibilidad del Personal al servicio de las Administraciones Públicas, sin perjuicio para las que ocupan ya un cargo público o una actividad privada incompatible de ejercitar el derecho de opción a que se refiere la citada norma legal.

j) No haber sido excluida de un proceso selectivo para el ingreso en algún cuerpo de Policía del País Vasco por la comisión de una falta grave o muy grave, salvo que hubiera transcurrido un periodo de tiempo equivalente a su plazo de prescripción contado desde la fecha de declaración de la exclusión.

k) Las personas aspirantes deberán de presentar una declaración con el compromiso de portar armas y en su caso utilizarlas.

Todos los requisitos deberán poseerse el día de finalización del plazo de presentación de instancias y mantenerlos hasta el momento de la toma de posesión.

*Quinta. Solicitudes.*

5.1. Las personas interesadas en participar en el proceso de selección deberán presentar la solicitud correspondiente, según el modelo normalizado disponible en la página web del ayuntamiento (www.Lazkao.eus).

5.2. Las solicitudes se presentarán dentro del plazo de 20 días hábiles contados a partir del día siguiente al anuncio de la convocatoria en el *Boletín Oficial del Estado*.

5.3. La presentación de instancias se hará en el ayuntamiento de Lazkao o en la forma establecida en el artículo 16 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

EK\CV GAO-I-2021-06975

Lazkaoko Udaletxean eskabideak telematikoki edo paperean aurkeztu ahal izango dira.

Eskabideak baliabide elektronikoen bidez aurkeztu nahi izanez gero, Erregistro Telematikoa erabili ahal izango da (https://lazkao.eus), eskabidea behar bezala beteta eta erantsita, baita parte hartzeko eskatzen den dokumentazioa ere.

Paperean doazen eskabideak Lazkaoko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (Euskadi Enparantza 1 20210 Lazkao).

Postetxeko bulegoetan aurkeztutako eskabideak epea amaitu baino lehen entregatuko dira irekita doan gutunazalean, Postetxeko funtzionarioak zigilatu eta eguna jartzeko. Horrela bakarrik ulertuko da sarrera izan duela Postetxean aurkeztu ziren egunean.

Egitatezko errakuntzak daudela konturatuz gero, edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

5.4. Onartuak izateko, eta, hala badagokio, dagokion aukera frogetan parte hartu ahal izateko, hautagaiek eskaerari agiri hauek gehitu beharko dizkiote:

— Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

— Deialdian parte hartzeko beharrezkoa den tituluaren fotokopia.

— Eskatutako gidabaimenen fotokopia.

— Euskara mailaren ziurtagiri edo tituluaren kopia, hala badagokio.

— Lehiaketaldian baloratzekoak diren merezimenduen zerrenda azaldu beharko da eskaeran. Zerrenda horretan agertzen ez diren merezimenduak lehiaketa fasean ez dira kontuan hartuko.

Merezimenduen egiaztagiriak lehiaketa fasearen aurretik aurkeztu beharko dira, epaimahaiak zehazturiko epeetan.

5.5. Izaera pertsonaleko datuak babesteko lege organikoa betetzea.

Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2016/679 Araudiak, 2016ko apirilaren 27koak, datu pertsonalen tratamendu eta datu horien zirkulazio libreari lotuta pertsona fisikoak babesteari buruzkoak (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta datuen babesari buruz indarrean dagoen gainontzeko araudiak ezarritakoa betez, izangaien izaera pertsonaleko datuak jarduera tratamenduaren parte izatera pasako dira, helburua hautapen prozesua kudeatzea izango delarik.

Tratamenduaren helburua eta aurreikusitako erabilera: langileak hautatzeko prozesuen Kudeaketa eta jarraipena, parte hartzeko eskabideak kudeatzea, onartuen eta baztertuen zerrendak, proben kalifikazioak eta merezimenduen balorazioak argitaratzea, hautaketa prozesuekin lotutako erreklamazio eta errekurtsoak kudeatzea, eskatzaileek prozesuan ekarritako dokumentazioa kudeatzea, probetako asistentzia kontrolatzea, ziurtagiriak luzatzea, prozesuen datu historikoak kontsultatzea, azterketak egitea; baita hautaketa prozesutik sortuko den lan poltsa kudeatzeko ere.

Izangaiek berariazko baimena eman beharko dute parte hartzeko eskaeran beren datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko. Datu lagapen horren helburu bakar eta esklusiboa administrazio publiko horiek enplegu eskaintzak egin ahal izatea izango da, legez aurreikusi bezala; eta izangaiaren onarpena berariaz jasotzen ez bada, lagapenaren aurka dagoela joko da.

Eskubideak: Izangaiek emandako datuak eskuratzeko aukera dute; baita Legeak ezarritako eran datuok zuzentzeko, aurkatzeko edo ezeztatzeko aukera ere; horretarako, Lazkaoko Udalaren Datuak babesteko ordezkariari idatzizko komunikazio bat bidali behar zaio.

En el Ayuntamiento de Lazkao las solicitudes se podrán presentar telemáticamente o en papel.

La presentación por procedimientos electrónicos se podrá realizar mediante el Registro Telemático alojado en la página web del ayuntamiento de Lazkao (http://www.Lazkao.eus), adjuntando la instancia debidamente cumplimentada y la documentación que se exige para tomar parte.

Las solicitudes en formato papel se presentarán en el Registro General del Ayuntamiento de Lazkao sito en Euskadi Enparantza 1 (20210).

Las instancias presentadas en las Oficinas de Correos se entregarán en éstas antes de la finalización del plazo de presentación de instancias, en sobre abierto, para ser fechadas y selladas por el/la funcionario/a de Correos. Sólo así se entenderá que tuvieron su entrada el día de su presentación en Correos.

Los errores de hecho que pudieran advertirse podrán subsanarse en cualquier momento, de oficio o a petición de la persona interesada.

5.4. Para ser admitidas y, en su caso, tomar parte en las pruebas selectivas correspondientes, las personas aspirantes deberán formalizar la solicitud y aportar la siguiente documentación:

— Fotocopia del Documento Nacional de Identidad.

— Fotocopia del título exigido para tomar parte en la convocatoria.

— Fotocopia de los permisos de conducir exigidos.

— Certificado o título del nivel euskara, en su caso.

— Listado de los méritos a valorar en la Fase de Concurso. No serán objeto de valoración aquellos que no se listen en la instancia.

Los certificados de los méritos deberán de entregarse antes de la fase de concurso, en el momento que especifique el tribunal.

5.5. Cumplimiento de la ley orgánica de Protección de datos de Carácter Personal.

En cumplimiento del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de datos de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (Reglamento general de protección de datos) y Ley Orgánica 3/2018 y demás normativa vigente en materia de protección de datos, se informa que los datos de carácter personal serán incorporados a la actividad de tratamiento con la finalidad de tratar la gestión de procesos selectivos.

Finalidad y usos previstos del tratamiento: Gestión y seguimiento de los procesos para la selección de personal, gestión de solicitudes de participación, publicación de relaciones de admitidas y excluidas, gestión de reclamaciones y recursos relacionados con los procesos, gestión de la documentación aportada por las solicitantes en la gestión del proceso, control de asistencia a pruebas, emisión de certificaciones, consulta de datos históricos del proceso, realizados de estudios; así como la gestión de la bolsa de trabajo que se derive del proceso selectivo.

En la solicitud de participación se requerirá el consentimiento expreso de las personas aspirantes para aceptar la cesión de sus datos a otras administraciones públicas. Esta cesión de datos tendrá como única y exclusiva finalidad que puedan recibir ofertas de empleo de esas otras administraciones públicas en los términos legalmente previstos, considerándose, de no constar expresamente la aceptación de la persona aspirante, que se opone a dicha cesión.

Derechos: existe la posibilidad de acceder a los datos facilitados, así como de solicitar, en su caso, su rectificación, oposición o cancelación, en los términos establecidos en la mencionada Ley, dirigiendo una comunicación escrita a la persona delegada de protección de datos del Ayuntamiento de Lazkao.

EK\CV GAO-I-2021-06975

Bidali behar diren datuak hauek dira: izen-abizenak; jakinarazpenetarako helbidea; eskatzen dena; data; eta interesatuaren sinadura.

Edonola ere, eskaera izenpetzeak eskaera egin duena jakinaren gainean geratu dela esan nahi du eta baimena eman duela bere datuak tratatzeko.

Informazioaren hartzaileak: Izaera pertsonaleko datu horiek bakarrik udal-Kudeaketan erabiltzeko izango dira; hala ere, beste administrazio publiko batzuei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie datuok 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babestekoan) aurreikusitako kasuetan. Identifikaziorako datuak eta hizkuntza-eskakizunei edo haien baliokideei buruzkoak IVAPari lagako zaizkio, eskaeretan aipatu diren datuak hango hizkuntza-eskakizunen erregistroko datuekin erkatu ahal izateko.

*Seigarrena. Hautagaien onarpena. Erreklamazioak.*

Onartu ahal izateko, parte hartu ahal izateko eskatutako betebehar guzti-guztiak betetzen dituela adierazi behar du izangaiak eskabidean. Adierazpen hori izangai bakoitzak bere ardurapean egingo du, eta onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi betekizun horiek betetzen dituela onartzen zaionik. Beraz, Udalak eskubidea du izangaia hautapen prozesutik at uzteko, baldin izangaiak eskatzen zaion unean betekizunak betetzen dituela frogatzen ez badu.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, alkateak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartuko du. Zerrenda hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki oholean eta web orrian (www.lazkao.eus) argitaratuko da. Ondoren, hamar egun izango dira ez onartzeko izan diren akatsak edo gabeziak zuzentzeko edota esandako zerrendaren aurkako erreklamazioak jartzeko.

Inork ere ezeren erreklamaziorik aurkeztu ez edo dei-egileak ezeren hutsik aurkitu ez badu, behin-behineko zerrenda behin betiko bilakatuko da, eta halaxe jakinaraziko da, alkatearen ebazpen baten bidez. Ebazpen hori, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean nahiz Udalaren iragarki oholean eta web orrian argitaratuko da.

Erreklamaziorik izaten bada, beste ebazpen baten bitartez onartu edo baztertuko dira, eta, era berean, behin betiko zerrenda ere onartuko da. Zerrenda hori aurreko paragrafoan esanda bezala argitaratuko da.

Behin betiko zerrendaren ebazpenean adieraziko da, era berean, epaimahaiko kide titularren eta ordezkoen izendapena.

Behin betiko baztertutako izangaiek berraztertze errekurtsoa aurkeztu diezaiokete ebazpena hartu duen organoari berari, ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabete joan baino lehen, edota zuzenean Administrazioarekiko Auzietarako Donostiako Epaitegira jo eta han aurkeztu errekurtsoa, bi hilabete baino lehen.

*Zazpigarrena. Epaimahaia.*

7.1. Osaera.

Deitutako hautaketa prozesuaren Epaimahaia, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Legearen 67 artikuluan eta Polizia Erregelamenduaren 22 eta 27 artikuluen artean aipatutakoaren arabera osatuko da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezartzen duenari eragotzi gabe. Bere osaera guztia udalaren webgunean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da onartutako eta baztertutako pertsona zerrendarekin batera, alkateak izendatu ondoren.

Ezin izango dira Epaimahai Kalifikatzaileko kide izan hautaketa edo izendapen politikoko langileak, behin-behineko langileak, bitarteko funtzionarioak edo aldi baterako lan-kontratudunak, ezta azken bost urteetan enplegu publikora sartzeko izangaiak prestatzen aritu diren pertsonak ere.

Los datos a enviar son nombre y apellidos, domicilio a efectos de notificaciones, petición en que se concrete la solicitud, fecha, y firma de la persona interesada.

En cualquier caso, la suscripción de la solicitud implica que la persona solicitante resulta informada y da su consentimiento al tratamiento de sus datos.

El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 3/2018 de Protección de Datos de Carácter Personal. Los datos de identificación y los relativos a la acreditación de perfiles lingüísticos o sus equivalentes serán objeto de cesión al IVAP, con el fin de verificar en el registro de acreditación de perfiles lingüísticos los datos de acreditación alegados.

*Sexta. Admisión de aspirantes. Reclamaciones.*

Las personas aspirantes, para ser admitidas, deberán declarar en la instancia que cumplen todos los requisitos de participación. Dicha declaración será bajo la responsabilidad de cada aspirante y el hecho de figurar en la relación de personas admitidas no prejuzga que se le reconozca la posesión de los citados requisitos, por lo que el Ayuntamiento se reserva la posibilidad de excluir a la aspirante del proceso selectivo en caso de que no acredite el cumplimiento de los requisitos en el momento en que se le exija.

Expirado el plazo de presentación de instancias, el alcalde aprobará la lista provisional de personas aspirantes admitidas y excluidas, que se hará pública en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en su página web (www.Lazkao.eus), concediéndose un plazo de 10 días hábiles –contados a partir del día siguiente de la publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa– para la subsanación de defectos u omisiones que hubieran motivado la exclusión, o para plantear reclamaciones contra dicha lista.

La lista provisional se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se presentan reclamaciones o no se aprecian errores de oficio, y así se hará saber mediante una resolución del alcalde que se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento.

Si se presentan reclamaciones, serán estimadas o desestimadas mediante una nueva resolución por la que se aprobará la lista definitiva, que se hará pública en los medios citados en el párrafo anterior.

En la resolución de la lista definitiva se indicará, asimismo, la designación de las personas que formarán parte del Tribunal Calificador y sus suplentes.

Las aspirantes definitivamente excluidas podrán interponer recurso de reposición ante el mismo órgano que dictó la resolución en el plazo de un mes desde su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, o impugnarla directamente, en el plazo de dos meses, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián.

*Séptima. El Tribunal Calificador.*

7.1. Composición.

El Tribunal calificador del proceso selectivo convocado, se constituirá conforme a lo señalado en el artículo 67 de la Ley de Policía del País Vasco y los artículos 22 a 27 del Reglamento de Policía, sin perjuicio de lo establecido en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, para los órganos colegiados. Su completa composición se publicará en la página web municipal y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa conjuntamente con la relación de personas admitidas y excluidas, previo su nombramiento por el alcalde.

No podrá formar parte del Tribunal Calificador el personal de elección o de designación política; el personal eventual; el personal funcionario interino o laboral temporal, ni las personas que se hayan dedicado en los últimos cinco años a preparar aspirantes para el ingreso al empleo público.

EK\CV GAO-I-2021-06975

Epaimahaiaren osaerak berezitasun-printzipioa errespetatuko du. Haren arabera, Epaimahaiko kideen erdiak gutxienez sartzeko eskatzen den ezagutza eremuari dagokion titulazioa eduki beharko dute. Aldiz, eta ez badu berezitasun-printzipioan eraginik, osaerak gaitasun, konpetentzia eta prestakuntza egokiak dituzten emakume eta gizonezkoen arteko parekotasuna izan behar du, 4/2005 Legearen, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, 20.6 artikuluan eta Euskal Herriko Poliziari buruzko 4/1992 Legearen 48.6 artikuluan (1/2020 Dekretu Legegileak emandako idazkera berrian) ezartzen denaren arabera. Era berean, kideak izendatzeko pertsona guztiak euskararen ezaguera izan dezaten ahalegina egingo da.

Epaimahaia, halaber, ordezko pertsonekin osatuko da eta, titularrekin batera, Epaimahaiaren Idazkaria eta Bokalak izendatu beharko dira, eta ezingo dira eskuordetu.

Epaimahaia honela osatuko da:

Lehendakaria:

— Lazkaoko Udaleko karrerako funtzionario bat, erdi-mailako edo goi-mailako teknikaria.

Epaimahaikideak:

— Poliziaren Euskal Akademiak izendatutako kide bat.

— Lazkaoko Udaleko edo Euskadiko beste udalerri bateko edo batzuetako udaltzaingoko bi kide.

— Lazkaoko Udaleko karrerako funtzionario bat.

— Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) partaide bat, deialdian ezarritako hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko izango diren probarako.

Idazkaria:

— Lazkaoko Udaleko karrerako funtzionario bat.

Epaimahaiak adituak izendatu ahalko ditu, aholkulari moduan arituko direnak beraien berezitasunari dagozkien alorretan. Pertsona horiek haien berezitasun teknikoetara mugatuko dute beraien jarduera eta horietan bakarrik lagunduko diote Epaimahaiari.

7.2. Jarduera.

1. Epaimahaiko kideek ezingo dute esku-hartu, arduradun deitzaileari jakinaraziz, eta hautagaiek ezetsi ahalko dituzte Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritakoaren arabera, edo deialdiaren argitalpenaren aurreko bost urteetan hautaketa frogetarako hautagaiek prestakuntza lanak egin badituzte.

2. Epaimahaiak 40/2015 Legearen 15 eta 19 artikuluen bitartean zehaztutako arauetara egokituko du bere jarduera. Nolanahi ere, idazkariak deitu ondoren, lehendakariaren aginduagatik elkartuko da, hautaketa probak hasi baino lehen aurrerapen nahikoarekin, beharrezkoa izanik bere baliozko osaketarako lehendakariaren eta idazkariaren asistentzia, edo, hala badagokio, hauek ordezkatzen dituztenena, eta gutxienez kideen erdiarena.

3. Erabakiak dauden kideen gehiengo botoen bidez adostuko dira. Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik, (hitza bakarrik izango du). Berdinketak lehendakariaren kalitatezko botoaren bidez ebatziko dira.

4. Lehendakariak eta bere ordezkoak ezin badute jardun (absentzia edo gaixotasunagatik, edo beste legezko kausengatik), hierarkia, antzinatasun eta adin gehien duen bokalak ordezkatuko du, ordena honen arabera Epaimahaiaren kideen artean.

5. Idazkariak eta bere ordezkoak ezin badute jardun (absentzia, gaixotasun edo beste legezko kausengatik), Epaimahaiko beste edozein kidek hartu ahal izango dugu Epaimahaiaren Idazkaritza, gehiengoz hartutako erabaki bidez.

La composición del Tribunal respetará el principio de especialidad. Conforme a él, se velará para que al menos la mitad de las integrantes del Tribunal posea una titulación correspondiente a la misma área de conocimiento que la exigida para el ingreso. No obstante y si ello no afecta al principio de especialidad, la composición ha de ser equilibrada entre mujeres y hombres con capacidad, competencia y preparación adecuadas, a tenor del artículo 20.6 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero para la Igualdad de Mujeres y Hombres y en el artículo 48.6 de la Ley 4/1992 de Policía del País Vasco (en su nueva redacción dada por el Decreto Legislativo 1/2020, de 22 de julio). Asimismo, para la designación de sus integrantes se procurará que todas las personas nombradas sean bilingües.

El Tribunal quedará integrado, además, por las personas suplentes respectivas que, simultáneamente con las personas titulares, habrán de designarse para la secretaría y vocalías del mismo, que no podrán delegarse.

El tribunal se formará de la siguiente manera:

Presidencia:

— Un funcionario de carrera del Ayuntamiento de Lazkao.

Vocalías:

— Una persona designada por la Academia de Policía Vasca.

— Dos personas integrantes del cuerpo de policía local de Lazkao o de otro u otros municipios de Euskadi.

— Una funcionaria de carrera del Ayuntamiento de Lazkao.

— Una representante del Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP) para la prueba destinada a acreditar el perfil lingüístico exigido en la convocatoria.

Secretaría:

— Una funcionaria de carrera del Ayuntamiento de Lazkao.

El Tribunal podrá designar personas expertas, que en calidad de asesoras actuarán en las materias propias de su especialidad. Dichas personas se limitarán al ejercicio de sus especialidades técnicas, en base exclusivamente a las cuales colaborarán con el Tribunal Calificador.

7.2. Actuación.

1. Las personas que integran el Tribunal deberán abstenerse de intervenir, notificándolo a la autoridad convocante, y las personas aspirantes podrán recusarlos conforme a lo establecido en los arts. 23 y 24 de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público, o si hubiesen realizado tareas de preparación de aspirantes a pruebas selectivas en los cinco últimos años anteriores a la publicación de la convocatoria.

2. El Tribunal ajustará su actuación a las reglas determinadas en los artículos 15 a 19 de la Ley 40/2015. En todo caso, se reunirá, previa convocatoria de la secretaria, por orden de su presidente/a, con antelación suficiente al inicio de las pruebas selectivas, siendo necesaria para su válida constitución la asistencia del/la Presidente/a y Secretaria, o, en su caso, de quienes les sustituyan, y de la mitad, al menos, de las personas integrantes.

3. Los acuerdos serán adoptados por mayoría de votos de las personas presentes. Todas las personas integrantes del Tribunal tendrán voz y voto, salvo la que realiza las funciones de secretaria. Los empates se resolverán por el voto de calidad del/la presidente.

4. En caso de que el/la presidente y su suplente no puedan ejercer (por ausencia, enfermedad d u otra causa legal) serán sustituidas por la persona vocal de mayor jerarquía, antigüedad y edad, por este orden entre las personas miembro del Tribunal.

5. En caso de que el/la secretario/a y su suplente no puedan ejercer (por ausencia, enfermedad d u otra causa legal) serán sustituidas por cualquier otra de las personas que integran el Tribunal elegida por acuerdo mayoritario de éste.

6. Epaimahaiaren presidenteak neurri egokiak hartuko ditu oposizio-fasearen ariketen edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko, baita hauek hautagaien nortasuna ezagutu gabe zuzenduko direla ziurtatzeko ere.

7. Hautaketa prozesuko edozein unetan Epaimahaiak jakiten badu Lehiakideren batek deialdian ezarritako betebeharretakoren bat ez duela betetzen, hura baztertzeko proposatu beharko dio hartarako eskumena duen organoari, izangaiak egindako okerren nahiz faltsutasunen berri emanik, betiere aldez aurretik interesatuari entzun ondoren.

8. Epaimahaiaren jarduera nahiz argitalpenak direla-eta egindako alegazioak idatziz aurkeztu beharko dira epaimahaiko idazkariari helaraziz, modu ofizialean erregistra ditzan.

9. Epaimahaiaren akordioak Lazkaoko Udaleko iragarki taulan eta Lazkaoko Udalaren www.lazkao.eus web orrian iragarriko dira.

7.3. Egoitza.

Komunikazio eta beste jazoeretarako, Epaimahaiaren helbidea Lazkaoko Udalaren bulego orokorrarena da (Euskadi Enparantza 1, posta-kodea 20210 Lazkao - Gipuzkoa), eta baita Udalaren egoitza elektronikoa ere, www.lazkao.eus portalean dagoena.

*Zortzigarrena. Hasiera eta hautaketa prozesuaren garapena.*

Epaimahai kalifikatzaileak oinarri hauetan ezarritako proben ordena alda dezake, edo proba batzuk egun berean egitea ere erabaki dezake. Kasu horietan, proba bakoitza ebaluatzeko, aurrekoa gainditurta izan beharko da.

Oposaketaren lehen jardueraren data, ordua eta lekua udalaren www.lazkao.eus webgunean argitaratuko da, 7 egun naturaletik gorako aurrerapenarekin.

Lanposturako lehiatzen duten hautagaiei oposizio fasearen jarduera bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie. Deitutako ariketetara aurkezten ez diren oposiziogileak baztertuta geratuko dira. Arau bera aplikatuko zaie probak hasita daudenean bertaratzen diren oposiziogileei.

Lehiakide guztiek ariketa batera egiterik ez dagoenean honela jokatuko da: izangaien hurrenkera epaimahaiak horretarako egindako zozketaren bidez erabakiko da.

Oposaketaren ariketa bat amaitu eta hurrengoa hasi arte gutxienez 72 orduko epea utzi beharko da.

Lehenengoaren atzetik datozen ariketen deialdiak Epaimahaiak argitaratuko ditu gutxienez 72 orduko aurrerapenarekin.

Epaimahaiak, edozein unetan, hautagaiei behar bezala identifikatzeko eskatu ahalko die eta, beraz, ariketa guztietara nortasun-agiriren bat eraman beharko dute.

Prozeduraren edozein unetan Epaimahaiak jakiten badu hautagai batek deialdiak eskatzen dituen baldintzak ez dituela betetzen, baztertu egingo da, interesdunari entzunaldirako eskubidea eman ondoren, eta egun berean horren berri emango dio hautaketa prozesua deitu duen arduradunari.

Ebazpenaren arabera prozesuan onartutako hautagaiek frogetan parte hartu ahal izango dute, baita baztertutakoen zerrendan agertzen direnen kasuan ere, ebazpenaren zain dagoen inpugnazioa aurkeztu dutela egiaztatzen badute. Inpugnazioa ezesten bada, hautagaia behin betiko prozesutik baztertua izango da.

6. La presidencia del Tribunal adoptará las oportunas medidas para garantizar la confidencialidad del contenido de los ejercicios de la fase de oposición, así como que sean corregidos procurando que no se conozca la identidad de las personas aspirantes.

7. Si en cualquier momento del proceso de selección cualquier integrante del tribunal tuviera conocimiento del incumplimiento de alguna de las obligaciones establecidas, deberá proponer su exclusión al órgano competente, haciéndole partícipe de las falsedades o de los errores en los que haya incurrido la persona candidata, tras escuchar a la interesada.

8. Las alegaciones realizadas en relación a las publicaciones o a la actividad del tribunal deberán presentarse por escrito, dirigiéndose a persona que ejerce de secretaria del tribunal, para que ésta las registre oficialmente.

9. Los acuerdos adoptados por el tribunal se anunciarán en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento de Lazkao: www.lazkao.eus.

7.3. Sede.

Para todo lo relativo a las comunicaciones y temas relacionados con el proceso, la dirección del tribunal será la misma que la de las oficinas generales del Ayuntamiento de Lazkao (Euskadi Enparantza 1, código postal 20210 Lazkao - Gipuzkoa), así como la de su sede electrónica, disponible en el portal www.lazkao.eus.

*Octava. Comienzo y desarrollo del proceso selectivo.*

El Tribunal puede modificar el orden de las pruebas establecidas en estas bases, pudiendo decidir, asimismo, la realización de varias pruebas en un mismo día. En esos casos, para la valoración de una prueba deberá haberse superado previamente la anterior.

La fecha, hora y lugar del primer ejercicio de la oposición se publicará en la web municipal www.lazkao.eus, con una antelación no inferior a 7 días naturales.

Las personas aspirantes que concurran a la plaza serán convocadas para cada ejercicio de la fase de oposición en llamamiento único. Las que no se presenten a los ejercicios a los que han sido convocadas, quedarán excluidas del proceso selectivo. La misma norma se aplicará a las personas que se presenten cuando ya se hayan iniciado las pruebas.

En aquellas pruebas en las que no puedan ser realizadas simultáneamente por todas las aspirantes se actuará de la siguiente manera: el orden de actuación de las aspirantes se establecerá por sorteo realizado por el Tribunal.

Desde la conclusión de un ejercicio de la oposición y el comienzo del siguiente, deberá transcurrir un plazo mínimo de 72 horas.

La publicación de la celebración de los ejercicios posteriores al primero, se efectuará por el Tribunal, al menos, con 72 horas, de antelación al comienzo del mismo.

El Tribunal podrá en cualquier momento requerir a las personas aspirantes que se identifiquen debidamente, por lo que deberán concurrir a cada ejercicio de la oposición provistos de un documento acreditativo de la identidad.

Si en cualquier momento del proceso llegara a conocimiento del Tribunal que alguna de las personas aspirantes carece de los requisitos exigidos en la convocatoria, se le excluirá de la misma, previa audiencia, dando cuenta el mismo día a la autoridad que haya convocado el proceso selectivo.

Podrán participar en las pruebas las personas candidatas admitidas en el proceso, así como aquellas otras que aparezcan en la lista de excluidas, siempre que acrediten haber presentado una impugnación y la misma esté pendiente de resolución. En el caso de que la impugnación sea desestimada, la candidata quedará definitivamente excluida del proceso.

EK\CV GAO-I-2021-06975

*Bederatzigarrena. Hautaketa prozedura.*

Hautaketa txanda irekiko oposizio-lehiaketa sistemaren bidez egingo da.

1. Oposaketa fasea.

Oposaketan honako ariketak izango dira:

— Lehen ariketa: Ariketa teorikoa, derrigorrezkoa eta baztertzailea.

Oposizioko ikasgaien programan jasotako gaiei buruz (I. eta II. eranskinak) idatziz egin beharreko test erako ariketa.

Gehienez 30 punturekin baloratuko da ariketa hau, beharrezkoa izanik gutxienez 15 puntu lortzea gainditzeko.

— Bigarren ariketa: Ariketa praktikoak ebazteko proba, derrigorrezkoa eta baztertzailea.

II. eranskineko gai-zerrendarekin zerikusia duten bi kasu praktiko eta/edo teoriko-praktiko edo gehiago idatziz ebaztea izango da.

Ariketa hau gehienez 30 punturekin baloratuko da eta gainditzeko 15 puntu eskuratu beharko dira.

— Hirugarren ariketa: Proba fisikoa, derrigorrezkoa eta baztertzailea.

Izangaiek III. eranskinean agertzen diren proba fisikoak egin beharko dituzte, gehienez 30 puntu lortu ahal izango dituzte, eta gutxienez 15 puntu atera beharko dituzte proba gainditzeko.

Izangaien guztirako puntuazioa ateratzeko, proba bakoitzaren puntuak batu eta deialdiaren eranskineko proba-kopuruaren zatitze eragiketa egingo da, eta ondoren, bider hiru.

— Laugarren ariketa: Izangaiek lanpostuaren ezaugarrietara egokitzen diren ikusteko proba. Derrigorrezkoa eta baztertzailea.

Ariketa bat edo gehiago egingo dira hautagaiek bete beharreko lanpostuaren giza eta teknika alorreko ezaugarriekiko duten egokitze maila baloratzeko (elkarrizketa, psikoteknikoak, etab).

— Gaitasun ariketak: Ahalmen intelektualei buruzko galdera-sorta bati erantzun beharko zaio, udaltzainaren funtzioak ondo betetzeko behar diren gutxieneko gaitasun intelektuala neurtzeko.

— Nortasun ariketak eta elkarrizketa pertsonala: Nortasun ariketa bat edo gehiago egitea eta elkarrizketa pertsonala. Hautagaia udaltzain lanposturako egokia den ala ez neurtuko da.

Ariketa honetan gehienez 10 puntu lortu ahal izango dituzte, eta gutxienez 5 puntu atera beharko dituzte proba gainditzeko.

Epaimahaiak ariketak egiteko ordena aldatu ahalko du, hautagaiei jakinaraziz ariketaren data eta orduaren berri ematean.

2. Lehiaketa Fasea.

Hirugarren ariketa egin ondoren, merituak egiaztatzeko 10 egun baliodunek epea ezarriko da.

Lehiaketako faseak gehienez 30 puntuko puntuazioa izango du. Lehiaketa fasea ez da baztertzailea.

Eskabidean adierazi eta egiaztatutako merituak aztertu eta baloratuko dira, jatorrizko dokumentuen edo kopien bitartez, betiere eskabideak aurkezteko epemuga erreferentziatzat hartuta. Merituak honela baloratuko dira:

— Lan esperientzia, gehienez 12 puntu.

Udaltzaingoaren edozein kategorietan izandako esperientzia: Gehienez 12 puntuz balioetsiko da, lan egindako hilabete bakoitzeko 0,40 puntu emanez.

*Novena. Procedimiento de selección.*

La selección de las personas aspirantes se llevará a cabo mediante turno libre y el sistema de Concurso-Oposición.

1. Fase de Oposición.

La fase de oposición constará de los siguientes ejercicios:

— Primer ejercicio: Prueba teórica de carácter obligatorio y eliminatorio.

Prueba tipo test a realizar por escrito sobre los temas contenidos en el programa de materias de la oposición (anexos I y II).

Este ejercicio se valorará sobre un máximo de 30 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 15 puntos para superarlo.

— Segundo ejercicio: Prueba de resolución de supuestos prácticos, de carácter obligatorio y eliminatorio.

Consistirá en la resolución por escrito de dos o más supuestos prácticos y/o teórico-prácticos, relacionados con el temario del anexo II.

Este ejercicio se valorará sobre un máximo de 30 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 15 para superarlo.

— Tercera prueba: Aptitud física. Obligatoria y eliminatoria.

Consistirá en la realización de las pruebas físicas que se describen en el anexo III, valorándose las mismas conforme a lo establecido en el citado anexo sobre un máximo de 30 puntos, debiendo obtenerse un mínimo de 15 puntos.

